



EGOKITZAPEN GARAIA



ONGI ETORRI FAMILIA!

Pasaia Lezo Lizeoan haurra bere osotasunean hartzen dugu, horretarako indibiduo bakoitzaren ezaugarriak kontuan izatean, ikustean, ulertzean eta errespetatzean dago oinarria; honen bitartez umea eta haurra erdigunean egongo da bere garapenaren protagonista izanik. Pasaia Lezo Lizeoan, inguruko baliabideak eta hezte egokia eskainiko dizkiogu umeari eta haurrari.

Eskolaratze garaian egoera berrien garaia izan ohi da haur eta familientzat.

- Ikastola espazio berria da.
- Dinamika landu batean sortutakoa.
- Beste haur eta heldu batzuekin harremanak izateko aukera zabaltzen zaie.
- Haur eta familia askorentzat banatuko zareten lehengo aldia izango da.

Hau guztia kontuan izanik, bi helburu nagusi ditugu Lizeoan:

- Haurrak eta familiak ikastolarekiko duzuen lehengo esperientzia atsegina izatea.
- Familiarekin batera haurren garapenean bidelagun izan, konfiantzan oinarrituta.

Horretarako diseinatu genuen guretzat hain garrantzitsua den **EGOKITZAPEN PROZESUA**.

EGOKITZAPEN PROZESUA

Prozesu honetan, familiek garrantzi handia duzue, hezitzaileekin batera elkarlanean lortuko baitugu haurra modu lasai eta goxoan, presarik gabe, ikastolara egokitzen joatea.

Lehenengo egunetan, zuen seme-alaba, zuekin etorriko da ikastolara eta zuekin egoteko aukera izango du. Haurra bera izango da bere egokitzapenaren iraupena markatuko duena.

Hezitzaileek haurrak egoki hartatu ahal izateko, taldea bitan banatuko dugu eta talde bakoitzak ordutegi desberdinetan egingo du egokitzapena. Bi hezitzaile egongo dira.

Lehenengo egunetan ikastolan egongo zarete haurrekin batera, eta, poliki poliki, egonaldia gutxituz joango da. Haurra lasai sentitzen hasten denean gelatik aterako zarete haurra hezitzailearekin utziz. Hasieran irtenaldi hauek laburrak izango dira baina haurrak konfiantza hartu ahal, irtenaldiak luzatu egingo dira.

Azkenean, haurra bera izango da banaketa onartuko duena.

Urteetako esperientziak adierazten digu egokitzapen prozesu honekin haurrak lasaiago sentitzen direla eta hezitzailearekin duten erlazioa hobetzen dela. Haurrak lotura afektibo berriak finkatuko ditu eta, etxean bezala, ikastolan ere seguru sentituko da.

Familiak eta ikastolak eskainitako segurtasun emozionala ezinbesteko oinarria izango da autoestimua eta autonomia garatzeko.



ZER EGIN MOMENTUA IRISTEN DENEAN?

- Haurren erritmoak errespetatu.
- Haurrak presarik eta estutasunik gabe ekarri. Lasaitasuna ematen saiatu.
- Helduaren emozioak haurraren islatzen dira, zaindu, beraz, zuen emozioak.
- Ekintzetan konstanteak izan, errutinak lagunduko die egoera barneratzen.
- Egunero aurreko arratsaldea eta gaua nola pasa duen hezitzailearekin komentatu.
- Egunero agurtu eta itzuliko zaretela gogorarazi, beti egia esanez. Saiatu agurra gehiegi ez luzatzen.
- Haurrari ziurtasuna emango dion “oso berea” den zerbait ekartzen utzi (txupetea, hartz txikia, zapia,...).
- Gogoratu prozesu guztietan gorabeherak egoten direla.
- Prozesu guztiak desberdinak dira.
- Zuen zalantzak eta sentimenduak konpartituiezazkiguzue. Jarri gurekin harremanetan beharra sentitzen baduzue.